

## **UPV/EHU Euskaraz Irakasteko Gaitasun Agiriko Probak (2021)**

### **1. ARIKETA: AUKERA ANITZEKO GALDERAK**

**Galdera hauetako bakoitzak lau erantzun ditu aukeran. Aukeratu ezazu erantzun zuzena edo egokiena, eta idatz ezazu ariketa honen amaierako (7. orrialdean) erantzun-taulan bakoitzari dagokion letra. Erantzun okerrak ez dira zigortuko.**

1. – *Ordu betean sei kilometro egingo nituzke oinez.* – \_\_\_\_\_
  - a) Mila euro ezetzari!
  - b) Mila euro ezetz!
  - c) Mila euro ez egin!
  - d) Mila euro ez duzula egingo!
2. *Pogacar txirrundulariak irabazi al du erlojuaren kontrakoa?*
  - a) Irabazi balu!
  - b) Irabazi badu!
  - c) Baietz irabazi duela!
  - d) Irabaziko ez zuen, ba!
3. *Zein da lau esaldi hauetan zuzena?*
  - a) Zuek ere jakinaren gainean egon beharko duzue.
  - b) Jakinaren gainean egon beharko duzue ere bai.
  - c) Jakinaren gainean zuek ere egon beharko duzue baita.
  - d) Zuek baita jakinaren gainean egon beharko duzue ere.
4. *Aukeratu ezazu zuzena:*
  - a) Joan behar zara, bai, lehenbailehen. Ezin duzu etxean geratu.
  - b) Joan behar duzu, bai, lehenbailehen. Ezin zara etxean geratu.
  - c) Joan beharko zinateke, bai, lehenbailehen. Ezin zara etxean gera.
  - d) Joan behar duzu, bai, lehenbailehen. Ezin duzu etxean geratu.
5. *Poltsa horiek neuk eramango ditut; gainerakoak, berriz, zeuk \_\_\_\_\_ dira.*
  - a) eramatekoak
  - b) eramanikoak
  - c) eramandakoak
  - d) eramanak
6. *Zer esan \_\_\_\_\_ Begoñari horrela haserretu \_\_\_\_\_.*
  - a) zenioten / zedin?
  - b) zenien / zedin?
  - c) zizuen / zedila?
  - d) zenioten / zedila?
7. *Hiru \_\_\_\_\_ ikusi genituen, eta \_\_\_\_\_ agur egin genien.*
  - a) neskatil / hiruri
  - b) neskatilak / hiruei
  - c) neskatil / hiruei
  - d) neskatila / hirurei

8. Zein da zuzena euskara batuan?
- Estudiatu gabe ere aproba ditzazkezu azterketa horiek.
  - Uste det neuk ere eramango detela txamarra lodia.
  - Andonik erosi ei zituzan otartekoak.
  - Launako taldeak ere osa genitzake.
9. *Zabaleta eta Altuna, \_\_\_\_\_, pilotari bikainak dira.*
- biak ala biak
  - biak edo biak
  - biak zein biak
  - biak nahiz biak
10. Honako hauetatik, zein bikotetako hitzak dira sinonimoak?
- izu      iseka
  - piztu    argitu
  - garai    altu
  - katilu    lerre
11. Esaldi hauen artean, zein da zuzena?
- Lurrera ez erortzeko, besotik heldu zidan.
  - Lurrera ez erortzeko, besotik heldu ninduen.
  - Lurrera ez erortzeko, besotik heldu nintzen.
  - Lurrera ez erortzeko, besotik heldu nuen.
12. Honako zein zerrendatan ageri da ortografia-akatsen bat?
- Otso, etsai, jaitsi, zintzarri, leiha
  - Hurbil, saihestu, horma, kutsadura, hesi
  - Zozo, etsi, sexu, testu, zital
  - Sustatu, milioi, leiho, goxo, ziur.
13. *Zer ordutan ateratzen da Madrileko autobusa?*
- Hiru t'erditan.
  - Hiruetan.
  - Hiruretan.
  - Hirutan.
14. *Ez nintzen oporretara joan, \_\_\_\_\_.*
- besoa hautsi bait nuen.
  - besoa hautsi bainuen.
  - besoa hautsi baitnuen.
  - besoa autsi bait nuen.
15. \_\_\_\_\_ *kontratua egin didate.*
- Behin-behineko
  - Behin-betiko
  - Behin behineko
  - Behin-betirako

16. *Pellok eta Julianek galdu egin dute \_\_\_\_\_ konfiantza.*
- a) elkarrenganako
  - b) elkarri
  - c) elkar
  - d) elkarrentzako
17. *Adituei sinestera, arazo horrek luze joko du. Hau da:*
- a) Adituak direla eta, arazo horrek luze joko du.
  - b) Adituen ondorioz, arazo horrek luze joko du.
  - c) Adituen esanetan, arazo horrek luze joko du.
  - d) Adituak aditu, arazo horrek luze joko du.
18. *Alderdi bietakoak akordio batera iritsi \_\_\_\_\_ zurrumurrua zabaldu da.*
- a) direlakoaren
  - b) direlaren
  - c) direnaren
  - d) direlako
19. *Zuk ez dakizu ezertxo ere ez. Zerbait **GAIZKI** du esaldi horrek?*
- a) Zuzena da.
  - b) Hurrenkera.
  - c) *Zuk* ordez *Zeuk* behar luke.
  - d) Azkeneko *ez* hori.
20. *Hainbat \_\_\_\_\_ gertatzen omen dira guraso eta seme-alaben arteko komunikazio-arazoak.*
- a) familitan
  - b) familiatan
  - c) familietan
  - d) familialan
21. *Ahalik eta lasterren \_\_\_\_\_ esan genion.*
- a) irteteko
  - b) irtetea
  - c) irten dadin
  - d) irten zezan
22. *Honako esaldi hauetako zein da zuzena?*
- a) Edatea mozkortzen nau, eta erretzea buruko mina jartzen dit.
  - b) Edateak mozkortzen nau, eta erretzeak buruko mina jartzen nau.
  - c) Edateak mozkortzen nau, eta erretzeak buruko mina jartzen dit.
  - d) Edateak mozkortzen dit, eta erretzeak buruko mina jartzen nau.
23. *Aukeratu ezazu esaldi zuzena:*
- a) Ezagutzen dut mutil bat bizikletez dena dakiena.
  - b) Ezagutzen dut mutil bat bizikletetaz dena dakiela.
  - c) Ezagutzen diodan mutil batek bizikleten gainean dena daki.
  - d) Ezagutzen dudan mutil batek bizikletetaz dena daki.

24. Zein da zuzena euskara batuan?

- a) Umeekin etorri bagara amamarengatik izan da.
- b) Umeekaz etorri bagara amamangatik izan da.
- c) Umeekin etorri ba gara amamarengatik izan da.
- d) Umekin etorri bagara amamagaitik izan da.

25. Zein da zuzena?

- a) Liburuak, koadernoak eta beste gauza erosi genituen.
- b) Liburuak, koadernoak eta beste gauza batzu erosi genituen.
- c) Liburu, koaderno eta beste gauza batzuek erosi genituen.
- d) Liburuak, koadernoak eta beste gauza batzuk erosi genituen.

26. \_\_\_\_\_, *aurkezpenak egingo ditugu*. Aukera hauetatik zein da OKERRA?

- a) Lehengo
- b) Lehenik
- c) Lehenbizi
- d) Aurrena

27. *Berandu iritsi dira; istripu txiki bat izan dute*, \_\_\_\_\_.

- a) antz denez.
- b) badirudi.
- c) nonbait.
- d) eta.

28. *Pentsamendu txarrak \_\_\_\_\_ ahaleginak egin zituen.*

- a) estaltzeko
- b) uxatzeko
- c) atertzeko
- d) garbitzeko

29. Idazkerari dagokionez, esaldi hauetako zein da zuzena?

- a) Gaisorik ez egoteko, jan arrautzak eta iogurrak bildur barik.
- b) Gaixorik ez egoteko, jan arrautzak eta yogurthak beldur barik.
- c) Gaisorik ez egoteko, jan arrautzak eta yogurtzak bildu barik.
- d) Gaixorik ez egoteko, jan arrautzak eta jogurtak beldur barik.

30. \_\_\_\_\_ *etortzeko esan dizut!*

- a) Lehen bait lehen
- b) Lehenbailehen
- c) Lehen-bait-lehen
- d) Lehenbaitlehen

31. *Askotan esaten diogu, baina entzungor egiten du*. Bestela esanda: \_\_\_\_\_, *entzungor egiten du*.

- a) Askotan esandakoan...
- b) Askotan esateagatik...
- c) Askotan esatearren...
- d) Askotan esanagatik...

32. *Nor den arduraduna?* Aukeratu jarraipen egokia:
- a) Ba, neu arduraduna naiz eta zu nire laguntzailea.
  - b) Ba, neu naiz arduraduna eta zu nire laguntzailea.
  - c) Ba, ni naiz arduraduna eta zeu nire laguntzailea.
  - d) Ba, neu arduraduna naiz eta zu neure laguntzailea.
33. Honako hauetatik zein da zuzena?
- a) Bai, etzi ikusten gara.
  - b) Bai, etzi ikusiko gara elkar
  - c) Bai, etzi ikusiko dugu elkar.
  - d) Bai, etzi ikusten dugu elkar.
34. Esaldi hauen artean, zein da zuzena?
- a) Maria zeritzon atso bat negarrez egon zen sermoiak iraun zuen bitartean.
  - b) Aitak zionez, alferrik ukatuko nuen hori egia zenik.
  - c) Hemen gaukazu, zer esan ez dakigula.
  - d) Buruko garunak bira eta bira nerabilen nik, korapiloa askatu nahirik.
35. *Zenbat kilometro \_\_\_\_\_ Bartzelonara heltzeko?*
- a) faltatzen zaizkigu
  - b) falta zaizkigu
  - c) faltatzen zaigu
  - d) faltatzen dira
36. *Gizarte Segurantzak ez du gu ailegatzten garenerako erretirorik bermatzen. Hortaz,*  
\_\_\_\_\_.
- a) ez du ukatzen.
  - b) aipatu ere ez du egiten.
  - c) ez du ziurtatzen.
  - d) ez du zalantzan jartzen.
37. Honako esaldi hauetatik zein da zuzena?
- a) Zure anaiak esandakoa ez deritzot ongi.
  - b) Ez dut ongi iritzi zure anaiak esandakoa.
  - c) Ez deritzot ongi zure anaiak esana.
  - d) Ez diot ongi iritzi zure anaiak esandakoari.
38. Zer da zuzena?
- a) Bilbo, 1994.eko apirileko 11a.
  - b) Bilbo, 1994ko apirilaren 11a.
  - c) Bilbo, 1994ko apirilaren 11.
  - d) Bilbo, 1994eko apirilak 11.
39. Honako hauetatik zein da zuzena?
- a) Munduko 16 tontor garaienak igoak zituen mendizale hark.
  - b) Ehundaka aparteko orduak sartzen omen dira zenbait lantegitan.
  - c) Ikaragarri gustatzen zitzaizkion hurren jolasak ikustea.
  - d) Makina bat bide ibilia zeuzkan etxera itzuli zenerako.

40. *Azkenean, trenez \_\_\_\_\_ itsasontziz abiatu ziren.*
- a) baizik
  - b) barik
  - c) baizik eta
  - d) baino
41. *Alargunduz geroztik, beltzez jantzita ibiltzen da.* Honako hauetariko bat EZ da esanahi berekoa.
- a) Alargundu zenez geroztik, beltzez jantzita ibiltzen da.
  - b) Alargundu denetik, beltzez jantzita ibiltzen da.
  - c) Alargundu eta gero, beltzez jantzita ibiltzen da.
  - d) Alarguntzerakoan, beltzez jantzita ibiltzen da.
42. *Oraindik ere ez dakit joango \_\_\_\_\_.*
- a) banaiz
  - b) banaizen
  - c) naizen
  - d) naizenik
43. Zein da zuzena?
- a) Bailara hau oso mendittua da.
  - b) Bailara hau oso menditxua da.
  - c) Bailara hau oso menditzua da.
  - d) Bailara hau oso menditsua da.
44. \_\_\_\_\_ *konfiantza galtzerik nahi ez baduzu, esaiozu dakizun guztia.*
- a) Zuregana
  - b) Zureganako
  - c) Zurenganako
  - d) Zuri buruzko
45. – *Noiz etorriko zara?* – \_\_\_\_\_
- a) Datorren urteaz.
  - b) Datorren urtean.
  - c) Datorren urtea.
  - d) Datorren urtez.
46. Honako hauetatik zein da egokiena?
- a) Dirua emango dizut liburua eros dakidazun
  - b) Dirua emango dizut liburua eros diezadazun.
  - c) Dirua emango dizut liburua eros diezazudan.
  - d) Dirua emango dizut liburua eros diezadakezun.
47. Aukeratu ezazu esaldi zuzena ortografiaren aldetik.
- a) XIX. Mendeko autore batena da Parnasorako bidea.
  - b) XIX. mendeko autore batena da: Parnasorako bidea.
  - c) XIX-garren mendeko autore batena da *Parnasorako bidea*.
  - d) XIX. mendeko autore batena da *Parnasorako bidea*.

48. Honako esaldi hauetako zein da zuzena?
- Den denak ez ditu ekarri; batzu ahaztu egin zaizkio.
  - Den-denak ez ditu ekarri; batzuk ahaztu egin zaizkio.
  - Den denak ez ditu ekarri; batzuek aztu egin zaizkio.
  - Den denak ez ditu ekarri; batzuk ahastu egin zaizkio.
49. Marratxoaren erabilerari dagokionez, esaldi hauetako zein da OKERRA?
- Auzoz-auzo, kalerik-kale.
  - Ama-alabak, han-hemenka.
  - Alfer-alferrik, poz-pozik.
  - Gernika-Lumo, Etxarri-Aranatz.
50. Ondoko esaldietako batean letra larriak ongi erabilia daude. Zeinetan?
- Ekainetik Irailera oporrak izango ditugu.
  - Gure herrira etorritako Frantziarrak joan dira.
  - Ikastetxe horretako Zuzendaria ezagutu dut.
  - Aita Santua erdi gaixorik omen dabil.

### **AUKERA ANITZEKO GALDERAK: ERANTZUN-TAULA**

1	11	21	31	41
2	12	22	32	42
3	13	23	33	43
4	14	24	34	44
5	15	25	35	45
6	16	26	36	46
7	17	27	37	47
8	18	28	38	48
9	19	29	39	49
10	20	30	40	50

## **2. ARIKETA: IRAKURRIAREN ULERMENA**

Irakur itzazu arretaz hiru testu hauek. Testu bakoitzaren amaieran, hari buruzko galdera batzuk dituzu. **Aukeratu ezazu galdera bakoitzeko erantzun zuzen bakarra**, eta idatz ezazu hari dagokion letra **13. orrialdeko erantzun-taulan**. Erantzun okerrak ez dira zigortuko.

### **1. TESTUA**

#### **Udatea jomugan**

Dagoeneko begien bistan dugun uda honetan, zorrotzagoak izan beharraz gaztigatu digu Iñigo Urkulluk. Iaz baino zorrotzagoak. Abuzturako ditugun egitasmoez mintzo, lagun batek telefonoz iradoki dit EAEko lehendakariaren hitzetan ez ote dagoen gozamen sadikoaren tantaren bat. Nik areago ikusten dut Aste Santuko laxotasunaren osteko kontzientzia txarraren itzala, pentsamendu katolikoan oinarritua, non gehiegikeria guztiek bere penitentzia baitakarte, maiz ontzeko asmoarekin edo ondu nahiarekin, hots, hurrengoan bekatu ez egiteko intentzioarekin. Ikusi beharko ditugu uda honetako neurri zorrotzago horiek!

Iruñean, berriz, sanferminetako jaiak ere dagoeneko begien bistan ditugun arren, Maia alkatea duda-mudatan omen dabil, festak bertan behera utzi gabe. Baionakoak, Iruñekoen *biki* zuri-gorriak, bai gelditu dira bertan behera, geroagokoak badira ere. Jendea errezeloa hartzen hasi da Iruñeko alkateak zer untxi mota atera nahiko duen kapelatik. Nik aspaldian egin nuen apustu jende normalarentzako meza solemneen alde eta peña zikinik gabeko zezenketen alde. Pandemia honek politikariei balio die beren ametsetan (dela autoritarismoa dela bazterketa) sakontzeko.

Angel Erro

*Berria*, 2021/04/16 (moldatua)



**1. Zein da Urkulluren jarrera datorren udarako neurriei buruz?**

- a) Urkulluk zigortu egingo gaitu uda honetan.
- b) Urkulluk esan du begien bista zorroztu beharko dugula udan.
- c) Urkulluk udan neurri gogorragoak etor daitezkeela abisatu du.

**2. Zer ikusten du idazleak Urkulluren jarreraren atzean?**

- a) Urkulluren jarreran kristautasunaren eragina ikusten du.
- b) Urkulluren jarreran gozamen sadikoaren tantaren bat ikusten du.
- c) Urkulluren jarreran jendeak bekaturik ez egiteko nahia ikusten du.

**3. Zer dio idazleak Iruñeko alkateari buruz?**

- a) Iruñeko alkateak ez du onartzen sanferminak Baionako jaien biki izatea.
- b) Iruñeko alkatea mago iruzurtiarena egiten ari dela erabakia hartzeko orduan.
- c) Iruñeko alkateak Baionako agintarien bidetik joko duela jaiei dagokienez.

## 2. TESTUA

### **Amerikak uste baino lehen lotu ziren**

Panamako istmoa duela 3 milioi urte sortu zela onartzen bada ere, adostasuna ez da erabatekoa. Esaterako, hainbat ikerketak erakutsi dute askoz lehenago ere gertatzen ari zirela bizidunen joan-etorriak istmoaren alde batetik bestera. Orain, Andeetako Unibertsitateko (Kolonbia) ikertzaileek gidatuta, Kolonbiako eta Panamako ikertzaile-talde batek froga geologikoak aurkitu ditu esateko itsas pasabidea duela 13 milioi urte itxi zela, gutxienez.

*Science* aldizkarian eman dute berri, eta antzinako ibai-sistema batek utzitako sedimentuak dira ikerketaren oinarri. Kolonbia iparraldean daude, eta, han, jatorriz Panamakoak bakarrik izan daitezkeen arroka bolkanikoen arrastoak aurkitu dituzte. Analisi geokronologikoen bidez, ikertzaileek ondorioztatu dute ibaien sistema duela 13-15 milioi urte sortu zela, eta Panamako arku bolkanikotik hegoalderantz isurtzen zituztela urak. Hori posible izateko, lurrezko konexio bat existitu behar zen ibaien sorlekuaren eta Kolonbia iparraldearen artean. Ikertzaileen esanetan, Erdialdeko Amerikako itsas pasabidea itxita zegoen ordurako, ia erabat.

Panamako istmoaren sorrera duela 3 milioi urte kokatzeko arrazoietako bat da orduan gertatu zela bizidunen migrazioerik handiena bi Ameriken artean (Great American Biological Interchange, GABI). Alabaina, 10 milioi urte atzerago kokatzeak "zentzua ematen die beste zenbait emaitza arrarori", Amsterdam Unibertsitateko Carina Hoorn ikertzailearen arabera. *Science* aldizkarian argitaratutako analisi-artikulu batean azpimarratu du data-aldatzeak ondorio garrantzitsuak dituela ozeanoen zirkulazioaz, klimaz eta bizidunen trukeaz orain arte genituen ereduetan.

Eider Carton Virto

Elhuyar Zientzia

(egokitua)

#### 4. Testuak dioenaren arabera, ...

- a) Arituak bat datoz Panamako istmoa duela 3 milioi urte sortu zelako hipotesian.
- b) Beharbada badira ebidentziak itsas pasabidea duela 13 milioi urte itxi zela pentsatzeko.
- c) Duela 3 milioi urte gertatzen ari ziren bizidunen joan-etorriak istmoaren alde batetik bestera.

#### 5. Testuak dioenaren arabera, ...

- a) *Science* aldizkarian eman dute berria, istmoaren sorrerari buruzko orain arteko ustea aldatu beharra ekarriko lukeena.
- b) *Science* aldizkarian argitaratu duten ikertzaileek diote Kolonbiatik Panamara urak isurtzen zituztela ibai batzuek, eta horrek esan nahi duela lurrezko konexio bat existitu behar zela duela 13 milioi urte.
- c) *Science* aldizkarian argitaratu duten ikertzaileen esanetan, Erdialdeko Amerikako itsas pasabidea itxita zegoen duela 3 milioi urterako.

#### 6. Testuak dioenaren arabera, ...

- a) Ozeanoen zirkulazioaz, klimaz eta bizidunen trukeaz orain arte genituen ereduak egiaztatzen dute istmoaren sorreraren hipotesi berria.
- b) Duela 3 milioi urte gertatu zen bizidunen migrazioarik handiena bi Ameriken artean, eta horregatik uste zuten adituek orduan gertatu zela Panamako istmoaren sorrera.
- c) Panamako istmoaren sorrera duela 10 milioi urte kokatzeak badu zentzua, orduan gertatu zelako bizidunen migrazioarik handiena.

### 3. TESTUA

#### **Espazioa eta denbora**

Zer esanahi dute, zuretzat, espazio eta denbora hitzek? Beharbada, espazioa zuretzat zera dateke: neguko gau hotz batean zerura begiratzean ikusten duzun izarren arteko belztasuna. Edo, beharbada, urre-kolorez estalitako espazio-ontzi bat irudikatuko duzu han, Lurretik Ilargira bidean, Estatu Batuetako banderako izar-marrez apaindua, eta ilea larru-arras eta Buzz edo antzeko izenak dituzten esploratzaileek gidatua bakarleku bikainean barrena. Baliteke denbora zure ordulariaren tiki-taka izatea, edo hostoen gorritzea, Lurrak Eguzkiaren inguruan urtero egiten duen ibilaldian iparraldeko latitudeak itzalaren aldera bost mila milioigarren aldiz makurtzean. Denok dugu espazioa eta denbora sumatzeko intuizio bat, gure izatearen egituraren parte baitira biak. Gure mundu urdinaren azalean egonik mugitzen gara espazioan barrena, denborak aurrera egin ahala.

XIX. mendeko azken urteetan, itxuraz elkarrekin zerikusirik ez zuten eremuetan emandako aurrerapauso handi batzuek bultzatuta, espazioari eta denborari buruzko ikuspegi sinple eta intuitiboa berraztertzen hasi behar izan zuten fisikariek. XX. mendearen hasierako urteetarako, Hermann Minkowski, Albert Einstein-en lankide eta tutorea, hasia zen idazten planeten orbiten eta bidaia handien antzinako agertokiaren hilberri-ohar gaur egun ospetsua: «Gaurdanik, espazioa bera eta denbora bera itzalik hutsenean aienatu dira, eta bien arteko nahasketa moduko bat besterik ez da izango berez».

Zer esan nahi izan ote zuen Minkowski-k denboraren eta espazioaren arteko nahasketarekin? Kutsua mistikoa duen adierazpen hori ulertzea Einstein-en erlatibitate bereziaren teoria ulertzea da. Teoria horrek ekuazioen artean ospetsuena dena aurkeztu zion munduari ( $E = mc^2$ ), eta betiko ezarri zuen unibertsoaren egitura ulertzeko gakoaren oinarrian  $c$  ikurrak adierazten duen magnitudea; hots, argiaren abiadura.

Einstein-en erlatibitate bereziaren teoria, muinean, espazioaren eta denboraren deskribapen bat da. Teoria horretan, funtsezkoa da abiadura berezi baten ideia; ez da abiadura horretatik harago azelera daitekeen ezer unibertsoan, indarrak indar. Abiadura hori argiaren abiadura da: 299.792.458 m/s espazio hutsean. Argiaren abiadura bizkorra da, baina ez, inondik inora, infinituki bizkorra. Izarren eta galaxien arteko distantzia handiekin konparatuz gero, norbera gogaitzeraino bezain motela izan liteke argiaren abiadura; hain motela, ezen ia argiaren abiaduraraino azelera baititzakegu guk geuk objektu txiki-txikiak tresna berezi batzuekin, hala nola 27 km luze den Hadroi Talkagailu Handiarekin (Partikulen Fisikarako Europako Zentroa edo CERN, Geneva, Suitza).

“Espazioa eta denbora” (pasarte hautatuak)

*Zergatik den  $E = mc^2$  (eta zergatik axola zaigun), ZIO 19*

Brian Cox eta Jeff Forshaw (Itzultzailea: Ixiar Iza Agirre )

**7. Testuaren arabera, zein da espazio eta denbora hitzen esanahia?**

- a) Denbora Lurra Eguzkiaren inguruan ipar hemisferioan egiten duen bidaia da.
- b) Zaila da espazioa eta denbora definitzea, baina intuitiboki sumatzen ditugu mugitzen garenean.
- c) Espazioa esploratzaile amerikarrek espazio-ontzietan Ilargira egiten duten bide beltz eta hotza da.

**8. Fisikarien lanari esker, ...**

- a) Albert Einstein-en tutoreak asko idatzi zuen espazioari eta denborari buruz.
- b) Iortu zen arlo desberdinetako teoria sinpleei bultzada ematea.
- c) ikuskera zientifikoak ordezkatu zuen hasieran senak agindutakoa.

**9. Minkowskiren adierazpena ulertzeko, lehenago ulertu behar da...**

- a) argiaren abiaduraren garrantzia unibertsoaren egituran.
- b) Einstein-en erlatibitate bereziaren teoria.
- c) intuizioak mistizismoari eman ziola bidea.

**10. Einsteinek garbi adierazi zuen:**

- a) Distantzia handietan argia motela da.
- b) Argia baino azkarragorik ez dago.
- c) Teknologiari esker, gaindi daiteke argiaren abiadura.

**IRAKURRIAREN ULERMENA: ERANTZUN-TAULA**

1	2	3	4	5
6	7	8	9	10

### 3. ARIKETA: IDAZLANA

Azpiko taulan aukeran dituzun gaietako **BAT** hartu behar duzu (nahi duzuna, zerrenda osotik), eta gutxienez **300 hitzeko** idazlan bat egin, euskara batuan. A edo B aukera hautatu behar duzu idazlana egiteko. **Ongi lotu idazlana gai horri.**

**A) Unibertsitateko** irakasle-talde bat **aldizkari bat** ari da argitaratzen unibertsitateko ikasleentzat, eta eskatu dizute zure arloko edo intereseko gairen baten berri eman dezazun artikulu batean. Dibulgazioan ari zara (ez testu akademiko bat prestatzen). Zeure iritzia ere plazaratu dezakezu.

**B) Eskolako apunteak** prestatzen ari zara, eta gai baten inguruko azalpenak idatziz eman nahi dituzu, ikasleen eskura jartzeko. Gai bat orokorki azaldu eta hainbat zehaztasun emango dituzu, ikasleei azalpen giak emateko.

ARLOA	GAIAK	
<b>Arkitektura</b>	Arkitektura eta energia-eraginkortasuna	Le Corbusier
<b>Artea</b>	Zer da artea? Nola definituko zenuke artea eta nola azalduko zenioke artista ez den bati artea zer den?	Arte-galeriak
<b>Biologia</b>	Immunitatea. Immunitate naturala eta artifiziala. Immunoeskasia	Primateak eta gizakia: eboluzioaren azken urratsak.
<b>Ekonomia</b>	Ekonomia berdeak	Nazioarteko merkatu-harremanak
<b>Filologia</b>	Emakumea eta literatura	Chomsky eta gramatika sortzailea
<b>Filosofia</b>	Aristotelesen ekarpenak	Filosofia moral eta politikoa
<b>Fisika</b>	Grabitazio-indarra: orbita motak	Energia berriztagarriak
<b>Geografia</b>	Itsasikarak	Europako geografia fisikoa
<b>Geologia</b>	Arroka motak. Nolakoak dira Euskal Herrian?	Erregai fosilak
<b>Gizarte-zientziak</b>	Marxismoa eta anarkismoa	Iritzi publikoa
<b>Heziketa fisikoa</b>	Hirugarren adina eta kirola	Gorputz-adierazpena
<b>Historia</b>	Kolonizazioa eta deskolonizazioa	Txina Aro garaikidean
<b>Informatika</b>	Elektronika digitala: Memoria motak	Adierazpen askatasuna gure gizartean
<b>Informazioa</b>	Kazetaritza digitala	Eten digitala. Internet gabeko herrialdeak eta herrialde digitalizatuak.
<b>Kimika</b>	Azidoak eta baseak	Lotura ionikoak
<b>Kriminologia</b>	Espetxe-sistema: ezaugarriak, funtzioak, egitura...	Animalien eskubideak kriminologiaren ikuspegitik
<b>Lan-harremanak</b>	Lan-sustapena eta laneratzea sustatzeko estrategiak	Sindikatuak
<b>Matematika</b>	Deribatuak eta funtzioen grafikoak	Matematika eta logika
<b>Osasuna</b>	Zeliakia, glutenik gabeko dieta	Nerabeen joerak elikaduran: egokia da zuzentzen ahalegintzea?
<b>Pedagogia</b>	Etengabeko ikaskuntza	Ikaste-irakaste prozesuaren osagaiak
<b>Psikologia</b>	Atxikimendua lehen haurtzaroan	Terapia berriak: musikaterapia, barreterapia...
<b>Teknologia</b>	Produktuaren bizi-zikloa, diseinua eta ergonomia	Zenbakizko kontrola fabrikazioan
<b>Zuzenbidea</b>	Oinordetza Zuzenbidea Euskal Herrian	Dohaintzak: kontzeptua eta motak

**ARLOA:**

**IDAZLANAREN IZENBURUA (GAIA):**

**AUKERA (A edo B):**

**ARLOA:**

**IDAZLANAREN IZENBURUA (GAIA):**

**AUKERA (A edo B):**



**ARLOA:**

**IDAZLANAREN IZENBURUA (GAIA):**

**AUKERA (A edo B):**

**EZ IDATZI EZER ORRIALDE HONETAN  
AZTERTZAILEEK ERABILTZEKO ORRIA DA**

**UPV/EHU-KO EUSKARA-PROBA. ZUZENKETA-ORRIA (1):**

**AZTERKETARIA:** .....

**NAN-zenbakia:** .....

Zuzenketa-orria

Aukera anitzeko galderen proba

Zuzenak:	Okerrak:	Zuriak:
GAI ( $\geq 32$ )		EZGAI ( $< 32$ )

Irakurmena

Zuzenak:	Okerrak:	Zuriak:
GAI ( $\geq 6$ )		EZGAI ( $< 6$ )

Idazlana

GAI	EZGAI
-----	-------

AZTERKETA IDATZIA: GAI / EZGAI

Oharrak

Lehen zuzentzailea

Bigarren zuzentzailea

**AHOZKO AZTERKETA**

GAI	EZGAI
-----	-------

Oharrak

1. azterzailea

2. azterzailea

3. azterzailea

**UPV/EHU-KO EUSKARA-PROBA. ZUZENKETA-FITXA (2)**  
**<EZGAI> DIREN AZTERKETETAN BETETZEKO**

Azterketaria: .....

(Markatu X batekin azken zutabeen zein arlotan ez den gai azterketaria)

**IDATZIA**

Atala	Oharrak	Irizpideak (AKTA)	(X)
Edukia	ez dio heldu emandako gaiari	4.2.3. (a)	
Moldea		4.2.3. (b)	
	esaldi sinpleegiak; gutxi idaztea		
	erregistro desegokia		
	joskera desegokia		
	lexiko desegokia		
	lanaren egituraketa eskasa (kohesioa eta koherentzia)		
Zuzentasuna		4.2.3. (c)	
	ortografia gaizki		
	euskara batua ez ezagutzea edo errespetatzea		
	deklinabideko huts nabarmenak		
	aditza gaizki erabilia		
	joskera okerra		
Akatsak		4.2.3. (d)	
	mezua ulergaitz bihurtzen dute		
	akats larriak eta ugari		
Beste batzuk			

Oharrak:

**AHOZKOA**

Atala	Oharrak	Irizpideak (AKTA)	(X)
Azalpena		4.3.2. (1.a)	
	jario falta		
	ez du azalpena ongi antolatzen		
	ez da gai azalpen zehatzak emateko		
Zuzentasuna		4.3.2. (2.a)	
	egitura okerrak edo traketsak erabiltzen ditu		
	ahoskera eskasa		
Moldea		4.3.2. (3.a)	
	ez da gai euskara batuan jarduteko		
	ez da gai hizkera zaindua erabiltzeko		
Beste batzuk			

Oharrak: